


EUSKADIKO
GAZTERIAREN
KONTSEILUA

AZAROAK 25: salaketa publikorako
protokoloaren lehen urte erdia



AZAROAK 25: salaketa publikorako protokoloaren lehen urte erdia

Emakumeen aurkako indarkeriak hamaika forma har ditzake; sotilenetik eta zuzenenera, esparru intimoenean gerta daiteke edota publikoenean... baina azken batean berdin dio formak, elkarren arteko harremana eta guztiak elkartzen dituen faktore komuna baitute: matxismoa.



EGKn matxismoaren iraunkortasuna salatzea eta honi aurre egiteko proposamenak egitea helburu izanik, gaztedian indarkeria zuzena gertatzen denean, alegia, indarkeriaren icebergaren alde ikusgarrian dauden egoerak gertatzean, salaketa burutzeko Protokoloa martxan jarri da 2016an.

Jada sei hilabetez martxan egon da protokoloa eta honek baimentzen digu nolabaiteko errealitatearen argazki bat edo, behintzat, argazkiaren alde bat aurkeztu ahal izatea:

Indarkeria Matxista salatzeke protokoloaren argazkia

2016ko ekainaren 22an onartuak izan ziren Berdintasun Protokoloak EGKren Ezohiko Batzarrean. Bakoitza Berdintasunaren aurka doan indarkeria mota bat publikoki salatzeke tresna da: Indarkeria Matxista Salatzeke Protokoloa bata; eta, Indarkeria LGTBI+fobikoa salatzekeoa bestea. Bi indarkeriek elkarren arteko harremana dute eta hau izan zen batera onartuak izateko arrazoi nagusia eta ez soilik lan-arlo berdinen proposamena izatea. Hala ere, gaurko egunean, Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako eguna izanik, Indarkeria Matxista salatzeke dagoen protokoloan ezarriko dugu arreta.

Indarkeria Matxista salatzeke protokoloa aktibatzeke badaude aurretiaz ezartzen ditugun irizpideak, hala nola: gazteria parte inplikatu izatea, hau da, alde erasotua edota erasotzailea 16-30 urte bitartean izatea eta gertakariak Euskadin ematea edota Euskadikoak diren gazteei.


Gauzak horrela, eta salaketa ahalik eta azkarren burutu ahal izateke beharrak bultzaturik, kasu batzuetan ezin izan dugu jaso bai erasotzaile eta bai erasotuen adinaren datua. Behin bi aldeetako bat gaztea zela konfirmatua, salaketa publikoa burutzera jotzen genuen. **EGKren helburua delako Indarkeria Matxista gizarte mailako fenomeno gisa salatzea eta honen aurkako jarrera adieraztea.**

Hala ere, badugu urte erdi honetako argazkia aurkezteke beste hainbat datu:

- Protokoloa 30 aldiz aktibatu da.
- Guztira 44 izan dira emakume erasotua eta 37 gizon erasotzaileak.
- Gutxienez, erasotzaileen %23a gaztea izan da.
- Kasuen %90an eraso ez da legediak Genero Indarkeria gisa definitzen duenaren barnean sartzen.

Jarraian Lurraldeko mapa aurkezten dizuegu non emakume salatzaileen arabera zifrak aurkezten diren. Bide batez, lurralde bakoitzean jasotako salaketetatik 1/2004 Legearen arabera Genero Indarkeria gisa zenbat ulertzen diren adierazi dugu ere:

EGKren protokoloaren aktibazioaren mapa



Kontuan izan behar dugu datuok ulertzeko EGK-k soilik administrazio, mugimendu feminista zein komunikabideek aditzera eman dituzten kasuen berri izan ahal duela eta, ondorioz, datu hauetan islatzen dena kanpo-faktoreen eraginaren menpe dagoela. Horregatik, derrigorrezkoa zaigu egun honetan salaketen datu osoak islatzen dituen Gazteen Euskal Behatokia jötzea.

Gazteen Euskal Behatokian jasotako datuak

Esan bezala, garrantzizkoa da salaketen zifra totalen analisisa ere egin ahal izatea EGK-k kanpo faktorez eraginda duen errealitatea kontrastatzeko, hala nola, erronkak eta eskaerak errealitatean oinarritzeko.

Honetarako Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak kontsultatu ditugu non urtero (2009tik) emakumeenganako indarkeria mota desberdinei buruzko datuak eskaintzen dituzten, datu iturria salaketa juridikoak izanik.

Hauek ondokoa erakusten dute:

- **Gazterian emakume salatzaileen kopuruek, hala nola, emakumeen aurkako indarkeriaren tasa globalak (2015ean %0,73koa izan zena) jaisteko joera hartu dute. Hala ere, ez dago jaitsiera nabari bat 2009arekiko. Gainera, tasa honek 30 urte baino gehiago dituzten emakumeen tasa (%0,3,5) bikoizten du.**
- **Bai askatasun sexualaren aurkako delituak bai bikote edo bikote ohiaren aurka ezarritako salatzaileen kopurua jaitsi egin dira. Hau da, ondoriozta genezake gero eta emakume gazte gutxiagok bizi dituztela Indarkeria Matxista egoerak.**

- Ordea, gure protokoloaren ondoriozko datuei kontra eramanik, emakume gazteen artean, 30 urte baino gehiago dituztenen artean bezala, bikotea edo bikote ohia salatzen duten emakumeen zifra askatasun sexualaren aurkako salaketena baino altuagoa da. Hain zuzen ere, proportzioa irauli egiten da eta emakumeen %12a izatea sexu askatasunaren aurkako delituen salatzaile dena.

Datuen argitan

Salaketak eta hauek duten oihartzunaren gainean interpretazio bat egiteak beti ditu bere arriskuak, hortaz, hauek ikusita **atzean egon daitezkeen errealitateez** hitz egin beharko dugu:

- Gizarte mailan erasoen larritasunaren kontzientzia gero eta altuagoa da, baita gazterian ere. Ordea, kezkatzen gaitu oraindik ere badirudiela indarkeria mota batzuk soilik direla ikusgaiak, bereziki hauekiko gizarte-kezka ikusgaitasunari zuzenean lotuta badao.
- Ondorioz, **gogorarazi nahi dugu indarkeria mota guztiak kontuan izan beharrekoak direla.**
- Bestetik, gizarte mailako ikusgaitasun eta beharrezkoa den kezka eta kontzientzia honen aurrean, salaketen jaitsiera ere baloratu behar dugu. **Pentsa genezake salaketen jaitsiera delitu mailaren jaitsierarekin ere lotua dagoela. Hala balitz, positibotzat har genezake** ere datu hau. Ordea, kontuan izan behar dugu **posible dela** ere delitu kopurua igotzen egotea baina **salaketarako joera galtzen egotea.**

Edonola izanda ere, garrantzizkoena da erasoek ez dutela oraindik amaiera izan, tamalez, matxismoak berak errealitate bat izaten dirauelako bai gizartean eta baita gazterian ere. Hala ere, Berdintasunarekiko konpromisoa duten beste hainbat eragilerekin batera EGK-k Indarkeria Matxistari ezetz esaten dion gazteekin lanean honi aurre egiteko bere eskaera eta proposamenak ditu.

Indarkeria Matxistari aurre egiteko proposamenak:

Alde batetik, Administrazioari:

Harrera juridikoari dagokionez

Detektatutako arazoa	Hobekuntzarako proposamena
Soilik eraso edo indarkeria mota batzuk dira Genero Indarkeria.	Genero Indarkeria edota Indarkeria Matxistaren markoan emakume izanagatik jasandako emakumeenganako indarkeria mota oro barne sartzea.
Erasoa jasan duen emakumearen ongizatea ez dago beti lehenetsita kontrol zein zigor neurrien egituran.	Ezartzen diren arretarako zerbitzu naiz erasotzaileentzako kontrol edo neurrien hobekuntza.
Salaketaren eta prozesu juridikoaren estigma.	Bigarren mailako biktimizazioa eta indarkeria jasan duen emakumearen epaiketa saihestuko dela ziurtatu testuinguru

Prebentzioari dagokionez

Detektatutako arazoa	Hobekuntzarako proposamena
Hezkidetzak oraindik ere era integral batean txertatzeko dago.	Hezkidetzak behar duen zeharkakotasuna eta garrantzia lortzea adin nahiz hezkuntza testuinguru guztietan.
Datuen gaurkotasun eta sakontasun falta.	Datuen sakontasuna erraztuko duten neurriak ezarri.
Behatokitik ez dira gizarte eragile desberdinetatik, bereziki feminismitik, erabiltzen diren kontzeptu berdinak erabiltzen.	Behatokiek ahalik eta kontzepturik argienak erabiltzea datuen irakurketa errazteko.

Arazoaren trataerari dagokionez

Detektatutako arazoa	Hobekuntzarako proposamena
Indarkeria kasuen arteko desberdintasunak sakonki ez aztertzea.	Gizarte desberdintasunak eta honen inpaktua Indarkeria Matxistaren bizipenean kontuan izan prebentzio mota guztietako neurrien diseinurako.

Bestetik, gazteriari:

O Tolerantzia eta inplikazioa

Detektatutako arazoa	Hobekuntzarako proposamena
Egunerokotasunean agertzen diren jarrera nahiz portaera matxisten garrantzia minimizatzea.	Frenoa bota jarrera zein portaera hauei. Sotilak eta "mikroak" dirudite, baina indarkeria bortitzera soilik jotzen da beste kontrol mekanismoek kale giterakoan.
Beste batzuen bizitza pribatuan gertatzen denez zereginik nahiz zeresanik ez dugula pentsatzea.	Erasoen testigu izatean, ez isildu, ekin eta luzatu laguntza indarkeria jasan duen emakumeari.
Indarkeriatik at beste aukerarik nahiz itxaropenik ez dagoela ustea.	Zure bizitza berreraiki dezakezu, izan ezazu argi, ez zaude bakarrik. Zurekin gaude.

Indarkeria Matxista kasuen nahiz honen sustrai diren beste errealitateei aurka egin

Detektatutako arazoa

Hobekuntzarako proposamena

Indarkeria Matxistaren sakontasuna eta formen aniztasunari buruzko kontzientzia falta.

Norbere burua naiz ingurugiroa kritikoki aztertzea eta eraldatzeko esfortzua egin.

Indarkeria Matxistarekin harreman estuan dauden beste Indarkeriak.

Dauden indarkerien arteko harremanaz kontzientzia hartu eta hauei ere aurre egin.

Berrikasi, berrantolatu eta berdintze konpromisoa

Detektatutako arazoa

Hobekuntzarako proposamena

Indarkeria matxistari buruzko sinesmenen existentzia: puntuala dela, arrazoi pertsonal hutsengatik ematen dela, soilik emakume batzuek jasaten dutela...

Kontuan izatea indarkeriaren sustrai estrukturala eta hau egituratzen duen ideologia bera.

Indarkeria Matxista, nahiz eta ondorio zuzen larrietarikoenak erakarri, matxismoaren egituraren parte bat baino ez da eta hau desagerrarazteko ere beharrezkoa dugu ahalik eta plano gehienetan aldaketak egitea, eragileak konprometitzea eta prebentzio neurriak ezartzea. Gainera, ezinbestekoa da emakume, hala nola, emakume gazteen kolektiboaren aniztasunari arreta ezartzea eta bizi diren egoera desberdinak kontuan izatea, esku-hartzeak benetan ahalduzaitzaileak izan daitezen.

Emakume gazteen askatasuna eta askatasun sententzia bera ziurtatu ezin izatea emakumeen hiritartasun eskubideak urratzea da. Horregatik, berriro ere inplikatu beharreko eragile guztiengana zuzentzen gara guztien konpromiso eske, era honetara eskaera hauen bitartez EGK-k Indarkeria Matxistaren aurkarekiko lanean duen konpromisoa bera berretsiz.